

## BIDEBARRIETA ZIENTIFIKOA

Íñigo de Miguel ikertzailearekin hitzaldi-solasaldia

### Medikuntza pertsonalizatuaren dilema etikoak

**Bilbo, 2025ko otsailaren 26a.** Medikuntza pertsonalizatua eraldatzen ari da gaixotasunak ulertzeko dugun modua, bereziki adimen artifiziala eta gene-analisien bezalako garapen teknologikoei esker. Historian lehen aldiz, arreta individualizatuagoa eta eraginkorragoa eskaintzeko aukera ematen diguten tresnak ditugu, paziente bakoitzaren ezaugarri berezietara egokituak, eta horrek orain arte ezagututako arreta medikoaren eredua irauliko duela ematen du.

Hala ere, teknologia horiek aurrera egin ahala, osasunarekin eta gizarte osoarekin zerikusia duten dilema etiko berriak sortzen dira. Datu bolumen handien erabilera masiboak pribatutasunari eta diskriminazio arriskuari buruzko zalantzak sortzen ditu. Zenbateraino gaude prest gure informazio pertsonala emateko, osasun arreta zehatzagoa lortzeko? Zer gertatzen da intimitaterako eta gure datuen babeserako eskubidearekin gero eta digitalizatuagoa dagoen mundu honetan?

Gai horien inguruan argia emateko asmoz, Iñigo de Miguelek, UPV/EHUko Ikerbasque irakasle ikertzaileak eta bioetikan eta teknozientzia berrien zuzenbidean adituak, **"Dilemas éticos de la medicina personalizada"** (Medikuntza pertsonalizatuaren dilema etikoak) hitzaldia eskainiko du martxoaren 5ean, asteazkena, 19:00etan, **Bilboko Bidebarrieta Liburutegian**.

Hitzaldian, Zuzenbidean eta Filosofian ere doktore den De Miguelek medikuntza pertsonalizatuaren erroka bioetiko nagusienetako batzuk aztertuko ditu, hala nola, pazienteen datuen kudeaketa masiboa, diskriminazio arriskua edo erabaki medikoak ez daudela bakarrik algoritmo automatizatuaren mende bermatzearen garrantzia. Horrez gain, beste gai batzuk ere jarriko ditu mahai gainean, esaterako, osasun arloko profesionalari alternatibak eskaini beharra terapiaekiko atxikidura falta saihesteko. Izan ere, fenomeno hori gaixo batek medikuaren aginduak behar bezala jarraitzen ez dituenean gertatzen da, eta egungo medikuntzaren erroka handienetako bat bihurtu da.

Medikuntza pertsonalizatuaren dilema etikoen inguruko hitzaldi-solasaldia [UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta **Bidebarrieta Liburutegiak** antolatzen duten Bidebarrieta Zientifikoa zikloaren saioa da. Hitzaldia aurrez aurre, eta *streaming* bidez ere ikusi ahalko da [KulturguneaTB](#) Kanalean. Aretoko sarrera doakoa eta libreza izango da lekuak bete arte.

#### Hizlaria

[Íñigo de Miguel Beriain](#) Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da (Nafarroako Unibertsitatea), Zuzenbidean lizentziatua eta doktore europarra (UNED) eta Filosofian

doktorea (UPV/EHU). Gaur egun, Ikerbasque ikertzaile irakaslea da UPV/EHUko Zuzenbide fakultateko Zuzenbide eta Giza Genoma Katedrako ikerketa-taldean. Espainiako Bioetika Batzordeko kidea eta Euskadiko Medikamentuen Ikerketarako Etika Batzordeko (CEIm) presidentea da. Bioetikarekin eta teknozientzia berrien zuzenbidearekin lotutako sei liburu eta hirurogei artikulua baino gehiago argitaratu ditu.

### **Hitzaldi-solasaldia: "Dilemas éticos de la medicina personalizada"**

(Medikuntza pertsonalizatuaren dilema etikoak)

**Hizlaria:** Íñigo de Miguel, Zuzenbidean doktore, Filosofian doktore eta Ikerbasque ikertzaile irakaslea UPV/EHUn

**Data:** martxoaren 5a, asteazkena

**Ordua:** 19:00etan

**Lekua:** Bidebarrietako Liburutegia (Bidebarrieta kalea, 4 – Bilbo)